


A photograph of a narrow street in Vietnam. On the left, a building has a vertical sign that says 'Giay' and 'Thị trấn Cổ'. A string of small red flags with yellow stars hangs across the street. In the background, a banner reads 'KINH ĐỜI ĐOÀN KẾT VÀY ĐOÀN CUỘC SỐNG MỜI TRÊN ĐỊA BÀN ĐOÀN KHU PHỐ 9, PHƯỜNG 19, Q. 9'. On the right, a shop has a sign that says '38 TỈNH GIANG MIY P.4-33 TIỀN B' and 'ĐANG GẮT BAY B'. People are sitting on motorcycles along the street. The word 'jakintza' is written in large, white, lowercase letters across a diagonal orange band.

# jakintza

herriaren hezkuntza  
proiektu komunitario  
eta ireki bat

ikastola



zer gara gu?

## HERRI ONURAKO IZENDAPENA DUEN KOOPERATIBA

Guzti horren aitortza gisara, **2004ean herri onurako kooperatiba izendatu zuen Eusko Jaurlaritzak**. Horrek adierazten du Jaurlaritzaren aurrean frogatuta geratu direla kooperatibaren jardueren bitartez interes orokorra edo guztien onura lortzen laguntzen dela, eta horretarako eskuzabaltasun, altruismo, elkartasun eta aniztasun balioak nabarmen gauzatzen direla.

## HERRIAREN ZERBITZURA DAGOEN KOMUNITATEA

Herriaren zerbitzura dagoen eta funtzio publikoa duen ikastetxe komunitario ireki bat gara ikastola. **Herri ekimenetik sortu ginen 1968. urtean euskararen eta euskal kulturaren konpromisoak bultzatuta**, eta orduan bezala, gaur egun ere, komunitatea osatzen dugunongan oinarritzen den hezkuntza proiektu bat da Jakintza. 1990eko hamarkadako zailtasun ekonomikoei aurre egiteko kooperatiba bihurtu zen ikastola, eta kooperatiba horren ardatzak langileak eta familiak badira ere, ikasleak dira gure jardunaren erdian kokatzen diren protagonistarik nagusienak.

# ikastetxe pribatu bat al da ikastola?

## IKASTOLA EZ DA IKASTETXE PRIBATU BAT

### **Ez, ikastola ez da ikastetxe pribatu bat.**

Aurretik esan bezala, ikastola eskola komunitario bat da, proiektu herrikoi bat du atzean eta funtzio publikoa du. Baina jabetza publikokoa izan beharrean, Eusko Jaurlaritzarekin kontzertatuta edo adostuta dago. Gaur egun, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako hezkuntza sarearen %50 jabetza publikoko ikastetxeak dira, eta beste %50a jabetza publikoa ez duten ikastetxeak, itunpekoak edo kontzertatuak –nagusiki ikastolak eta kristau eskolak–.

Azken horien artean dago Jakintza: Jaurlaritzaren jabetzatik kanpo dago. Hala ere, kontzertatuta dauden beste ikastetxe batzuen aldean, ikastolen atzean ez dago erlijio, elite edo bestelako interes partikularrik bilatzen duen giza talderik, baizik eta euskararen eta Euskal Herri euskaldun baten aldeko konpromisoa duten eta komunitatea osatzen duten pertsonak: ikasleak, ikasle ohiak, irakasleak, langileak eta gurasoak. Alegia, Jakintzaren kasuan, Ordiziako herria.

## FUNTZIO PUBLIKOA BETETZEN DU

Funtzio publiko bat betetzen duelako, Jaurlaritzak diruz laguntzen du Jakintza, ikastolan urtez urte matrikulatuta dauden

ikasle kopuruaren arabera. Nolabait, ikasle horiek sare publikoan ez egoteagatik aurrezten duen dirua ordaintzen dio, hezkuntza eskubide bat delako eta ikasle horiek ikastolan egon ez balira, euren eskolatze gastua Jaurlaritzak ordaindu beharko lukeelako.

## ZERGATIK ESATEN DA ORDUAN PRIBATUA DELA?

### IKASTOLAREN PROIEKTUA HERRIKOIA DA

Ikastola publiko eta pribatuen dikotomia 1993. urteko Euskal Eskola Publikoaren Legeaz geroztik sortu zen. Azken bi hamarkadetako kontu bat da, beraz, ikastolak pribatuak direla esatea, Euskal Herrian hezkuntza proiektu herrikoirik izan bada, ikastolena izan delako. Frankismo garaian sortu ziren herritik euskararen alde, eta Ordiziakoa ere hamarkadetan milaka ordiziarrek egindako lanari esker eta ordaindutako kuotei esker iritsi da gaur egun dagoen tokira. Eta hala da gaur egun ere. Ikastetxe pribatu baten kontzeptua ez dator bat, beraz, Jakintza ikastolarekin. Bere oinarrietan Jakintzak dio ikastolek hirugarren hezkuntza sare bat osatzen dutela, ez publiko eta ez pribatu: Euskal Herriko eredua.

# ikastetxe pribatu bat al da ikastola?

## EREDU KOMUNITARIOA DA GEUREA

Gertatzen da, ordea, 1993ko Legeak aukera eman zuela ikastolei bere jabetza Eusko Jaurlaritzaren esku uzteko; ordura arte ikastola guztiak sortu zituztenen eta urteetan dirua jarri zutenen jabetzakoak ziren. Hala egin zuten batzuek, adibidez Beasaingo Alkartasuna Lizeoak. Baina ez beste batzuek. Ordizian Jakintzak ordura arteko bidearekin jarraitzea erabaki zuen, proiektu komunitario bat izaten.

## ZER EGIN BEHAR DUGU ORAIN?

### IKASTOLA KOMUNITARIOA ERAIKITZEN JARRAITU

Guzti horretarako, Ordizian publiko-pribatu dikotomia gainditzea beharrezkoa da Jakintza ikastolarentzat, ikuspegi integralago eta anitzago bat izateko, gaiari elkarrekin heldu ahal izateko eta ez bakoitzak beretik. Are eta gehiago Ordizian bi ikastetxe bakarrik egonda: Urdaneta eta Jakintza. Eta dikotomia hori bezala, herriari batere mesede egiten ez diote beste batzuk gainditzea ezinbestekoa da: ona-txarra, euskalduna-

erdalduna, gurea-besteena, hemengoena-kanpokoena...

Jakintza ikastolaren komunitatea osatzen dugunok aniztasunean sinesten dugu, eta ez ditugu gure ikasleak inorengandik bereizi nahi.

Aitzitik, Ordizian dugun errealitatearekin eta gizartearen aniztasunarekin bat egin nahi dugu eta ikastolaren izaera komunitarioari eutsi eta indar handiagoa eman nahi diogu. Horretarako ari gara lanean, baina beste eragile batzuen inplikazioa ere eskatzen dugu, guk bakarrik ezin baitiogu aurre egin gizarte mailan planteatutako erronka honi.





# segregazioa, soilik hezkuntza arloko ERRONKA bat da?

## HERRIARI DAGOKIO ERRONKA HORRI AURRE EGITEA

Jaurlaritzari joera hori aldatzeko eskatzeaz gain, Jakintzak herri mailako interbentzio bat ere eskatu du Ordizian, desoreka handia baitago herrian Urdaneta eta Jakintzaren artean atzerriko jatorria duten ikasleei dagokionez. Horrek ez du laguntzen eskolatzea modu inklusiboan eta orekatuan egiten eta aniztasuna bermatzen. Eta Jakintzak gizartea euskaldundu eta bere ikasleak balore jakin batzuekin hezi nahi baditu, ezinbestekoa du komunitate anitza osatzea, Ordizian dagoen errealitatearen isla izatea.

Hala ere, nabarmendu behar da segregazioaren arazoa ikastetxeetatik haratago doala Ordizian, eta herri mailako erronka bat da. Kirol klubak, aisialdi taldeak,

musika eta dantza eskolak, hezkuntzan bezala, bestelako jarduera horietan ere ez da behar bezala islatzen jatorria kanpoan duten haur ordiziarren kopurua. Elkarguneak topatzeaz gain, beraz, behar-beharrezkoa da gaur egun ezarrita dauden muga ikusezinak haustea. Modu integralean heldu behar zaio arazoari, azken finean etorkizuneko Ordizia marrazten ari garelako.

# GARESTIAK AL DIRA IKASTOLAKO KUOTAK?

## IKASTOLAKO KUOTAK AHALIK ETA MERKEEN MANTENTZEN SAIATZEN GARA

Kuotarik behar ez izatea ideala litzatekeela aitortuta, esan behar da gaur egun beharrezkoak direla ikastolaren martxa on baterako. Jaurlaritzak ordaintzen duen diruarekin ez da estaltzen sare publikoan ez dauden ikasle horiek eskolatzeak dakartzan gastua, %66 soilik finantzatzen du; gainontzekoa gurasoek ordaintzen dute kuotekin. Kuotei esker, pertsonal gastua soilik ez, egin beharreko inbertsioak ere ordaintzen dira. Diru horren zati bat, gainera, elkartasun printzipioan oinarrituta, Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko ikastoletara bideratzen da, euskarak behar handiagoa duen lekuetan baitituzte ikastolek baliabide gutxien.

Kuoten gain, beste zerbitzu osagarri batzuk ere ordainpekoak dira Jakintzan. Goizeko haur zaintza zerbitzua 38 euro ordainduko da hileko 2019-2020 ikasturtean, gosaria hileko 12,5 euro, bazkaria eguneko 6,7 euro, behetik gorako goizeko autobus zerbitzua hileko 20 euro eta oinezko garraioa hileko 15 (bidaia bat egunean), 25 (bi bidaia) eta 35 euro (hiru bidaia).

## EPEZ KANPOKO GARAIETAN, ESKOLARATZE BATZORDEAREN ERABAKIA DA

Ikasturtean zehar Ordiziara iristen diren haur eta gaztetxoek kasuan, ordea, Eusko Jaurlaritzaren Eskolaratze Batzordea da horiek Urdanetara edo Jakintzara bideratzea erabakitzen duena. Eta hori da ez kontu txikia, orokorrean atzerriko jatorria duten ikasleak bereziki matrikulazio garaitik kanpo eskolatzen baitira. Horrek esplikatzen du, hein batean, zergatik ikastolak ez garen gure matrikulazio kopuruari legezkiokoen atzerriar jatorriko ikasleen zenbakietara iristen. Jakintzak sekula ez dio ukatu inori eskolatzea, eta beti egon da hartzearen alde, jatorria edozein delarik ere. Eskolatze Batzordea, ordea, batzorde tekniko bat da, eta joera du ikastetxe batzuetara bideratzeko beti ikasleak, desorekak sortuz, ez soilik ikastolen eta ikastetxe publikoen artean, baita sare publikoko ikastetxeen artean ere.

## AURREMATRIKULAZIO GARAIAN, GURASOEN ERABAKIA DA

Lehen erabakia gurasoena da, aurrematrikulazio eta matrikulazio garaikoa. Horregatik ezinbestekoa da Jakintzarentzat atzeritik iritsi diren gurasoei ikastola nortzuek osatzen duten, zer proiektu pedagogiko duen eta zenbat ordaintzen den ondo jakinaraztea. Azken urteetan defizit bat egon da zentzu horretan, eta errealitatearekin erabat zerikusirik ez duten baieztapenak ere zabaldu dira: ikastetxe elitista bat dela, arrazakeria dagoela, ikasketak ez daudela homologatua eta garestia dela eta kuotak galbahe gisara erabiltzen direla.

Gauzak diren bezala komunikatuta eta ikastola den bezalakoa ezagutarazita uste oker horiek berehala erortzen direla eta ikastolarekiko irudia azkar aldatzen dela frogatu dugu. Horregatik beharrezkotzat jotzen da orain bai ikastolak baita gurasoek ere, batez ere kanpotik etorritako beste pertsona batzuekin harremana dutenek, Jakintzari buruzko informazioa zabaltzea.

## JAKINTZAK SORMENEAN, ELKARTASUNEAN ETA ANIZTASUNEAN IZAN NAHI DU ABERATSA

Inguruko beste ikastetxe batzuetako kuotek eta orain arteko esperientziak argi uzten dute Jakintzako kuotak ez direla garestiak. Beste gauza bat da baliabide gutxien dituzten familiek kuota horiek ordaintzeko ahalmena duten. Jakintzan ikasteko dirua eragozpen bat izan ez dadin, ikastolak beti laguntza eskaini izan du eta, beste ikastolekin batera, beka sistema bat aztertzen ari gara behar gehien duten familiei matrikula eta zerbitzu horien gastuei aurre egiten laguntzeko.

Esan behar da, gainera, azken urteetako krisia aintzat hartuta, Jakintzak ez dituela zerbitzuen prezioak igo, nahiz eta horrek ikastolari zama bat ekarri dion. Ikastolaren asmoa ez baita familiak estutzea, are gutxiago ekonomiak laguntzen ez duenean, baizik eta proiektu ireki bat izatea, baita baliabide ekonomiko txikiagoak edo behar handiagoak dituzten familientzat ere. Jakintzak sormenean, elkartasunean eta aniztasunean izan nahi du aberatsa.

# proiektu anitza al da ikastola?

## IKASTOLAKO ATEAK ZABALIK DAUDE

Zalantzarik gabe, bai. Ikastolaren oinarrietan daude jasota integrazioa, inklusibitatea eta aniztasuna, eta Jakintzaren komunitatea hainbat kultura eta herrialde desberdinetako ikasle eta gurasoek osatzen dute. Ikastolak irekita izan ditu ateak beti kanpotik etorri nahi duen edonorentzat, baina gaur egun beharrezkotzat jotzen du ikastolen mugimendua eta errealitatea zer den ez dakitenei proiektu erakargarri bat aurkeztea, atzeritik etorri diren gurasoak eta euren haurrak ere, jatorria, erlijioa edo kultura edozein delarik ere, gure komunitatearen parte izan daitezen.

Izan ere, aniztasuna egon badagoen arren, Jakintzan guraso atzeritarak dituzten ikasleen kopurua ez dago parekatuta Ordizian gaur egun dagoen aniztasun mailarekin. Gertatzen da Gipuzkoako eta Araba eta Bizkaiko beste ikastetxe batzuetan ere. Eta gertatzen da sare publikoko ikastetxeetan ere.

2018-2019 ikasturtean Jakintzan orokorrean %11 dira bi gurasoak atzerrian jaioak dituzten ikasleak: %16,51 HHn, % 10,28 LHn, %8,84 DBHn eta %6,25 Batxilergoan.

Atzerrian bi gurasoak edo bietako bat jaioa duten ikasleak, berriz, %15 dira: % 21,23 HHn, %16,45 LHn, %9,64 DBHn eta % 7,50 Batxilergoan.

## GELAK BEHAR DITUGU ANIZTASUNARI EUSTEKO

Atzeritik iritsitako gurasoentzat ikastola erakargarria egiteko erronkari helduta, nabarmentzekoa da Haur Hezkuntzan handiagoak direla bi gurasoak edo bietako bat kanpokoa duten ikasleen ehunekoa: 2 urteko eta 3 urteko ikasgeletan %20tik gorakoa da, eta kasuren batean, %30etik gertu dago.

Jakintzarentzat horregatik ezinbestekoa da Eusko Jaurlaritzak maila horietan hirugarren lerroak zabaltzea, horrek aukera ematen diolako ikastolari datozen urteetan ikasturtean zehar kanpotik iristen diren ikasle gehiago hartzeko. Hirugarren lerroak zabaldu ezean, Haur Hezkuntzatik ikasgelak bete-beteta badaude, jende gehiago hartu ezin egongo da gero ere ikastola, eta ez da hori ikastolak nahi duena bere aniztasun proiektuarentzat eta Ordiziako bizikidetzarentzat.

Aurten izandako esperientziak emaitza oso ona eman du, gainera. Iaz Jaurlaritzak ez zuen zabaldu hirugarren lerroa, baina Jakintzak ikastolara etorri nahi zuen inor kanpoan geratu ez zedin, hirugarren lerroa kontzertatu gabe zabaltea erabaki zuen, gastua bere gain hartuz. Hirugarren lerro horri esker, ikasturtean zehar atzerriko gurasoak dituzten ikasleak sartu ahal izan dira 3 urteko geletan. Hirugarren lerro hori gabe, Urdanetarara bideratu beharko zituzten ikasle horiek.